



Milaka herritarrek egin zuten Kilometroak 2006ko ibilbidea. JON URBE / ARGAZKI PRESS



Ordezkariek politikoen solasaldian presoak gogoan izan zituzten. JON URBE / ARGAZKI PRESS



Haurtzaro ikastolako lehendakariak omenaldia. JON URBE / ARGAZKI PRESS



Bergarako Aranzadi ikastolak hartu zuen 2007rako lekukoa. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Euskaltzale uholdea

Milaka lagun bildu ziren igandean Oiartzunen, Haurtzaro ikastolaren aldeko festan

GURUTZE PIKABEA
Donostia

Goiz-goizetik, eguraldia lagun, milaka eta milaka euskaltzalek bat egin zuten igandean Gipuzkoako ikastolen egun handiarekin. Duela 14 urte eguraldiak zapuztutakoa atzean utzita, Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako herritarrek ez zuten huts egin Oiartzungo Haurtzaro ikastolari laguntzeko festan. Antolatzaileak oso pozik agertu ziren urte osoko lanaren emaitzarekin eta «aurreikuspen onena» ere gainditu zutelako adierazi zuten. Bildutako diruarekin eraikin berria egingo dute.

Ingo yeu! Ingo ñeu! lelopean eman zioten hasiera festari.

09:30ean zabaldu zuten zazpi kilometroko ibilbidea, ikastolako hiru ordezkariak zinta moztu zutenean: Haizea Izargarai ikasleak, Iñaki Garmendia gurasoak eta Jaione Irigorri irakasleak. Eguerdi aldera, Oiartzungo herriari omenaldia egin zioten, ikastolari eman dion babesa eskertuz. Haurtzaro Ikastolak 40 urteotan izan dituen hamar lehendakariak gogoan izan zituzten ekitaldia.

Euskal alderdi politikoetako ordezkariak zabala ere inguratu zen Oiartzunera. Han izan ziren, besteak beste, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta bozeramailea eta Juanjo Agirrezabala Hezkuntza Saileko berrikuntza arloko arduraduna. Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua ez zen bertan izan, gaixorik zegoelako. Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Leire Ereño Batzar Nagusietako lehendakaria ere han izan ziren.

EAJ, Batasuna, EHAK, EA, EB eta Aralarreko ordezkariak ere bai; baita Udaltzako lehendakari Loren Arkotxa ere.

Antolatzaileek esker ona adierazi nahi izan zieten ikastolari laguntza ematera gerturatu ziren guztiei. Aldi berean, *ondopasa, pasatu gabe* leloa bere egin zutenak eta baso ekologikoak erabili zituzte-

nak ere zoriondu zituzten. Antolatzaileen aholkuari jaramon egin da, jende andanak erabili zuen garraio publikoa Oiartzunera hurbiltzeko. Euskotrenek jakinarazi zenez, 21.500 pertsona inguruk erabili zuten tren.

Hurrengo urtean Bergarako Aranzadi ikastolak antolatuko du Kilometroak festa, *Argi daukagu*

lelopean. 1991n ere Bergaran egin zen Gipuzkoako ikastolen aldeko jai.

Kilometroak 2006 zozketaren emaitzak ere jakinarazi zituzten atzo: auto zozketaren zenbaki saritua: 24.535; sarrera postuen laguntza bonoen zozketako zenbakia; Mediterraneo itsasoan egingo den zeharkaldiaren saritua: 21.722.

2006-07 IKASTURTEA

Mandarin txinera – frantsesa – ingelesa

GAUR HASTEN DA

Azken tokiak!

DONOSTIA:

Ereñalde
Liribetia 16, 1
Tel.: 943 42 77 07

Moraza
Moraza 5, beheak
Tel.: 943 47 12 91

Amara
Eustasio Amilibia, 14
Tel.: 943 45 26 67

Benta Berri
Bertsolari Xalbador 8, beheak
Tel.: 943 31 38 28

Gros
Secundino Esnaola, 39
Tel.: 943 29 72 71

IRUN:

José Ramón Agirretxe, 1. oitza
Tel.: 943 63 98 90

www.lacunza.es